

# Atsategi

etxebizitza

Aldaerak: Atsategibarria  
Ahozkoa: Atsátei



43° 9' 60"

2° 35' 41"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Jatorrizko baserriaren gaineko lehen aipu dokumentala 1704ko Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu, *Asategi*, hain zuzen ere. XIX. eta XX. mendeetan zehar, aldaketa gutxi jasan ditu izen honek: *Asategui* (1800, JCR 1128/017), *Azategui* (1859, BUA, Nmcr), *Atzategui* (1910, BUA, RU.) eta *Atzategui* (1967, BUA, CE.). Baserria orain dela urte batzuk bota zuten, industria-gune berria egiteko. Dena den, egungo txaleta 1973. urtean eginda dago. Abadiñon izen bereko baserri bat

dago, eta 1796ko su-erroldean *Berriz Asategui* aipua agertzen da, Abadiñoko *Asategui* etxetik bereizteko. Ahozko transmisioan *Atsátei* aldaera mantendu da, eta, egun, txalet honi erreferentzia egiteko *Atsategibarria* ere erabiltzen da.

Jatorrizko baserria bizitza bikoa zen, eta hortik 1905. urtean Berrizko Udal Artxiboen dokumentazioan aurkitzen ditugun aipuak: *Azategui Juliana* (1905, BUA, 40) eta *Azategui de José* (1905, BUA, 40). Aipamen horiek, gure ustez, erakusten

*“... la casería rústica titulada Azategui... situada en la Cofradía de Abaitua barrio de Arriaga jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que ocupa una planta solar de ochenta y dos y cuarto estados cuadrados o sean trescientos doce metros y cochocientos setenta y nueve milésimas de metro, y la que se compone en su piso llano de zaguán, enlosado, cocina, horno, aposento y dos cuadras, y encima de este piso, de tres dormitorios, desban y pajar, siendo su construcción de piedra mampostería y sillería por sus cuatro fachadas hasta el tejado, los suelos de los dormitorios y del desban entablados, las cerraduras del zaguán de mampostería y el resto de la casa de tabiques de ladrillo, y la armadura de material de roble...”*

*DJE 1/107 or. (1864)*

## toponimia

Dokumentazioan z eta s tartekatzen dira baina ahoz Atsatei esaten zaionez badakigu, ia ziurtasun osoz, jatorrizko izena Atsategi zela. Bizkaian oso arrunta da toponimo batean -ts soinua zegoen kasuetan z edo s agertzea idatzirik. Pentsa genezake kasu honetan atso hitza eta tegi “etxe” atzizkia ditugula. Gogoratu behar da hitz konposatuetan -o>-a aldaketa ohikoa dela eta, esaterako, pagadi esaten diogula pago asko dagoen lekuari.



*Cerediaga Elkarte / T. Angoitia*

dute bertan familia bi zeudela. Desagertuta badago ere, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako etxe neoklasiko bikoitzaren adibide garbia zen. Guztiz simetrikoa, horma luzitu eta pintatuekin, eta baoak harriz inguratuak. Hiru solairu eta ganbara zuen eta etxe bizitzen arteko banaketa bistakoa zen. Alde bakoitzaren baoak hiru ardatzetan atondu ziren, erdikoak balkoiak izanik lehenengo eta bigarren solairuetan. Leiho txikiak ganbarakoak eta bigarren pisuko izkinakoak ziren.

Honen ordezkari zen etxe berria, osterara, bizitza bakarrekoa da. Etxea lehenengo solairuan altxatzen da. Behekoan, sarrera, garaje eta soto funtzioa egiten duena dagoelako, baita aterpea ere, harrizko zutikoen gainean. Aurreratutako gorputzak du indarra. Harlanduzko zutoinak markatuta, balkoiak zeharkatzen du alderik alde. Eta ondoan, imitazioko zurajea egin zioten, tartekak zuritu egin zituzten eta goialdekoak, adreiluaz bete. Bestetan ere konbinazio bera erabili zuten.